

FESTIBAS 2026 – OINARRIAK

Banden Jaialdia antolatu da, Basaurin, egun bat eskaintzeko herriko musika bandei eta Basozelai Gizarte Etxeko entsegu-geletako erabiltzaileei.

Basauriko Udalak antolatzen du «Festibas». ZirtZartek, Basauriko Udalaren Gazte Zerbitzuak, izen-emateak jasoko ditu 2026ko uztailaren 20tik irailaren 4ra bitartean, eta, gero, antolatzaileek banda batzuk hautatuko dituzte, 2026ko urriaren 12an, Basauriko San Fausto jaietan zuzenean jotzeko.

- Baldintzak:
 - Parte hartzen duten banden kideetako bat, gutxienez, Basaurin bizitzea; bestela, beharrezkoa izango da aurreko hiru ikasturteetan edo aurtan (2023, 2024, 2025 edo 2026an) entseguak egin izana Basozelai Gizarte Etxeko lokaletan.
 - Taldeko kideak 12 urtetik gorakoak izatea.
 - Musika-estilo guztiak onartuko dira.
- Izena ematea:

Jaialdian parte hartu nahi duten taldeek izena emateko orria bete beharko dute (ZirtZart Zerbitzuaren webgunean edo Basauriko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri; harremanetarako telefono-zenbakia: 944 666 430), eta irailaren 4a baino lehenago bidali zirtzart@basauri.eus helbidera, bandaren deskribapenarekin (.doc, .docx edo .pdf formatuan) eta taldeko kideetako baten NANaren fotokopiarekin edo errolda-agiriarekin batera, jatorria egiaztatzeko (bandak ez badu entsegurik egin 2023tik hona Gizarte Etxeko lokaletan). 12-15 urte bitarteko kiderik badago taldean, gurasoen edo legezko tutorearen baimena beharko dute, eta NANaren argazkia aurkeztu beharko dute haiek ere.

- Bandak hautatzea:

Izena eman duten banda guztietatik, antolatzaileek hautaketa egingo dute, urriaren 12an, zuzenean, Basaurin jotzeko, Mojawarte plazan. Zenbat bandak parte hartuko duten, antolatzaileek aldatu ahalko dute, euren irizpideen arabera. Taldeko kideren batek 12 eta 15 urte bitartean baditu, legezko tutoreen baimena eta NAN/AIZren argazkia ere aurkeztu beharko ditu.

BASAURIKO UDALA – ZIRT ZART BASAURI

Tel.: 944 666 430 / 634 984 615

Email: zirtzart@basauri.eus

Webgunea: www.zirtzart.basauri.eus

